



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: TRONPA 2019ko OTSAILAREN 25a

2019ko OTSAILAREN 25ean Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **tronpa** espezialitatean. Bertan esku hartuko du Rodolfo Epelde, Oscar Sala, José Gallego, Irek Jagla irakasleek eta Musikeneko tronpa ikasleek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten tronpa ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten tronpa ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Jarduanaldiaren helburua

- Ikasle bakoitzaren mailaren balorazioa egitea proposatzen dituen obrak entzunez.
- Musikeneko saxofoi ikasleekin egiten den lana erakustea, besteentzako erreferentzia izan dadin.
- Sarrera probak egin nahi dituztenei informazioa ematea, ikastegian sartu ahal izateko.
- Interpretazio probaren atal ezberdinei buruz informazioa ematea, bai eta Ikastegiaren ikasketa planari buruz ere.

Lan-egitasmoa

9.30-10.30: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Tronpa espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena. Eraikinari bisita gidatua.

10.30-12.00: izena eman duten ikasle aktiboentzat beroketa eta teknika eskola Musikeneko tronpa ikasleekin batera Rodolfo Epelde irakaslearen eskutik.

12.00-13.30: Rodolfo Epeldek bakarkako tronpa eskolak emango dizkie Musikeneko ikasleei, José Gallego erreperitorio pianistekin.

14.00-15.00: Elkarrekin bazkaltzeko etenaldia, hala nahi duenak, Musikene inguruan.

16.00-17.30: Rodolfo Epeldek bakarkako eskolak emango dizkie ikasle aktibo moduan izena eman dutenei, 2019-20 ikasturterako sarrera proba egin nahi dutenei lehentasuna emanez

16.00-17.30: Oscar Salak orkestra erreperitorio eskolak emango dizkie Musikeneko ikasleei.

17.30-18.45: Rodolfo Epeldek bakarkako tronpa eskolak emango dizkie Musikeneko ikasleei, Irek Jagla erreperitorio pianistekin.

17.30-18.45: Oscar Salak izena eman duten ikasle aktiboekin eskolak emango dizkie, 2019-20 ikasturterako sarrera proba egin nahi dutenei lehentasuna emanez

19.00-21.00: Musikeneko tronpa ikasleen entzunaldia

Non

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia
Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián



musikene

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750 E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkusio instrumentuen Departamentu buruarekin: Rodolfo Epelde repelde@musikene.eus